

## ZABALETAREN AUTOBUSA

Maialen Watzinger , 13 urte

*Urrestilla/Azpeitia*

Txiki-txikitatik ezagutzen dut Zabaleta. Gure autobuseko gidaria da. Egunero eraman eta ekaritzen gaitu ikastolara. Oso tipo jatorra eta sinpatikoa da. Autobusa zaharra da, baina oso txukuna eta eroso.

Zabaleta oso tipo berezia da. Handi samarra; eta bere oinak eta eskuak hartz batenak dirudite. Bere janaririk gustokoena baratxuria da, kilo erdiko txuleta azpian duela. Urteak ere ez ditu faltan, baina osasuntsu eta alai segitzen du bere lanean. Ez da Robert Reford, baina “kurioxa”, berak dioen bezala.

Goizean jaiki, eta gosaldu aurretik leihotik begiraten dudanean han dago zain Zabaleta, bere autobus zaharrean eta bozina jotzen dit. Bidaia kantuan eta behatzekin tarrapataka etortzen da bere trikitixa eta fandangoekin. Imuntzo eta Beloki ditu bere idoloak. Aldian behin ahalegintzen da irrintzi bat botatzen, baina arrantza bat baino ez zaio ateratzen, eta gu barrez lehertzen gara. Buruan beti txapela, neguan bere hiruzpalau ile bakanak epeltzeko eta udan freskoago izateko.

Egunero, abiatu aurretik zerrenda pasatzen du ea norbait falta den.

–Zer moduz Maialen, gure neska motza?

–Aita ehizera jaiki al da, Xabi?

–Ez al duzu lorik egin Begi-Handi.

Eta horrela hamarrok sartu arte. Ane du begikoenena, txikiena baita, eta ihes egiten ahalegindu arren, gerritik heldu eta kilimak egiten dizkio bere atzapar handiekin. Maixux atobuseko zaintzailea da, eta guk txantxak egiten dizkiogu Zabaletari ea andregaitzat ez al duen nahi, baina berak ezetz, gustora bizi dela mutilzahar.

Goiz batean ohetik jaiki eta leihotik begiratu nuenean, Zabaletaren autobusa falta. Berandutu egingo zitzaien! –nire baitan. Etxetik ateratzean, gure autobusaren lekua furgoneta-taxi batek okupatzen zuen. Gure Zabaleta eta Maixux falta. Gu galdezka hasi ginen; baina Patxik, hala zuen izena taxistak, ez zekiela ezer, goizean goiz deitu ziotela “servizio” bat egitera.

Eguerdian Maixux azaldu zitzaigun eskua benda batean bildua zuela.

–Zer gertatu zaizu, Maixux? –ezer esateko astirik ematen ez geniola. –Non dago Zabaleta? Zerbait gertatu al zaio?

–Atzo zuek utzi eta etxera gindoazela, lurra bustita eta kurba gaizto batean, irrist egin eta autobusa irauli egin zen. Nik kolpe batzuk baino ez ditut, eta besoa more samar. Baina Zabaleta lo dago.

–Lo? Nola liteke lo egotea? –harrituta Ane.

–Zumarragako hospitalean dago, eta lo dute...

–Zumarragan? Haraino joan al da lo egitera?

–Medikuek lokartu dute.

Denok triste geunden. Zabaletarekin joan nahi genuen ikastolara, benetako autobusean eta ez taxi-furgoneta batean. Zabaletaren musika nahi genuen. Zabaletaren trikitixa eta arrantza.

Istripua eta zazpi egunera, bisitan joan gintzaizkion. Plantan omen zeukaten. Iritsi ginenean, orde, lo zeukaten artean, hartzen neguko loaldia-  
ren antzera. Zurrungak bi solairu beheragotik entzuten ziren. Bat-batean isildu egin zen, azkenetan dabilen tramankulua bezala. Orduan begiak zabaldu; begiratu, eguerdiro autobusean lo-kuluxkatik esnatzean egiten duen bezala, eta:

–Zer, denok a gaude? Abiatzeko prest?

Hauxe hau gure Zabaleta!